

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

1729

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 28koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez erregistratu, gordailutu eta argitaratzen baita Batzorde Paritarioak hartutako erabaki bat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietako kolektibitate-enpresen hitzarmen kolektiboaren soldata-taulak onartzeko 2020. urterako (hitzarmen-kodearen zenbakia: 86002235012003).

AURREKARIAK

2020ko otsailaren 13an, REGCON erregistroan aurkeztu dute enpresaren eta sindikatuen ordezkariak sinatutako aipatutako hitzarmen kolektiboko batzorde paritarioaren akordioari buruzko dokumentazioa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Lan-agintaritzak honi dagokio Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 90.2 artikuluan aurreikusitako eskumena (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hura), hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuaren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 9.1.i) artikuluari dagokionez.

Bigarrena.– Prozedura honetan aplikagarri den funtsezko araudia bi dekretu hauetan jasota dago: hitzarmen eta akordio kolektiboak erregistratu eta gordailutzeari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailua sortu zuen urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretua.

Hirugarrena.– Aurkeztu den erabakia inskribatu beharreko egintza bat da, maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuaren 2.1.a) artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz.

Aztertu dira inskribatzeko eskaera eta erantsitako dokumentazioa, eta ikusi da eskaera horretan betetzen direla legezko eskakizun guztiak. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistro eta gordailua sortu zuen urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindua ematea akordioa inskribatu eta gordailutu dadin Euskadiko Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan, eta horren berri alderdiei jakinaraztea.

Bigarrena.– Akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 28a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
MARÍA ELENA PÉREZ BARREDO.

Alex García Mujikak, Hezkuntza Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietako kolektibitate-enpresen hitzarmen kolektiboaren berme eta jarraipenerako batzorde paritarioak emandako baimena dela bide, hau adierazten du:

2020ko otsailaren 7an –ostirala– egindako bilkuran, batzorde horrek jarraian azaltzen den gaia aztertu zuen, eta hona hemen hartutako erabakia, bileraren aktatik hitzez hitz kopiatua:

Planteatzen den gaia: 2020rako soldata-eta onartzea.

Batzordearen ebazpena: Batzordeak, aho batez, honako erabaki hau hartu du:

«Lehenengoa.– 2020ko soldata-eta onartzea, akta honen eranskinean jasota dauden zenbatekoekin.

Bigarrena.– Lan Harremanen Kontseiluari agintzea, haren lehendakariaren bitartez (Tomás Arrieta Heras), 2020ko soldata-eta onartzea lan-agintaritzari aurkezteko, erregistratu eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara daitezen.»

Eta hala ziurtatzen du, dagozkion ondorioak izan ditzan, Bilbon, 2020ko otsailaren 13an.

2020ko martxoaren 30a, astelehena

ERANSKINA

SOLDATA-TAULAK (2020KO URTARRILA)

% 2KO IGOERA

Soldata-taula (2020ko urtarrila)			Hilean	Orduaren balioa
Sukaldaria	Oinarrizko Soldata x 14	24.575,47 €	1.755,39 €	15,44 €
	Iraunaldi-plusa x 14	405,99 €	29,00 €	0,26 €
Kolektibitateen laguntzailea	Oinarrizko Soldata x 14	22.619,38 €	1.615,67 €	14,21 €
	Iraunaldi-plusa x 14	401,93 €	28,71 €	0,25 €

Soldata-taula (2020ko urtarrila)				
	Sukaldaria		Kolektibitateen laguntzailea	
	Oinarrizko soldata	Iraunaldi-plusa	Oinarrizko soldata	Iraunaldi-plusa
Eguneko ordu bat-Asteko 5 ordu	241,72 €	3,99 €	222,48 €	3,95 €
Eguneko bi ordu-Asteko 10 ordu	483,43 €	7,99 €	444,96 €	7,91 €
Eguneko hiru ordu-Asteko 15 ordu	725,15 €	11,98 €	667,43 €	11,86 €
Eguneko lau ordu-Asteko 20 ordu	966,87 €	15,97 €	889,91 €	15,81 €
Eguneko bost ordu-Asteko 25 ordu	1.208,59 €	19,97 €	1.112,39 €	19,77 €
Eguneko 6 ordu-Asteko 30 ordu	1.450,30 €	23,96 €	1.334,87 €	23,72 €
Eguneko 7 ordu-Asteko 35 ordu	1.692,02 €	27,95 €	1.557,34 €	27,67 €